



BARREN
TOKIKOM



Aitortza ibilbide oso bati



115 urteren ostean, aro berria hasi du Garatek


Familia-denda da Garate, eta familiako hirugarren belaunaldikoak dira Aintzane eta Ruth Garate. Euren aitona sastrea zen, eta hark zabaldu zuen Garate denda, orain dela 115 urte. Aintzane eta Ruthen aita ere sastrea zen, eta hark eman zion segida aitona hasitako biderei, baina sastre izateaz gain, ehiza eta arrantza zituen zaletasun, eta kirol horiekin lotura zuten elementuak ere saltzen zituen. Garai batean, denetarik saltzen zuten Garaterenean: kiroltarako osagarriak, hondartzarako jostailuak, kanpinerako beharrezko tresnak... Aintzane eta Ruthen dendaren ardura hartu zutenean, goitik behera aldatu zuten, eta kaleko arropa saltzen hasi ziren. 29 urte egin dituzte jada emakumezkoen eta gizonezkoen jantziak saltzen.

Garaiak aldatuz doaz, ordea, eta egokitu beharra dago. Sare sozialak, esaterako, ezinbesteko eta eguneroko tresna bihurtu zaizkie, eta haiei esker, dendaren oihartzuna gero eta zabalagoa da Elgoibartik kanpo ere. Hori horrela, udaberriko denboraldiari berrikuntzekin ekin diote: bezeroen eskariari erantzuteko, denda osoa emakumeari eskaintzea erabaki dute.

Denda margotu, altzari batzuk kendu eta bizitasun handiagoa eman diote. Bezeroarentzat erosoagoa da denda orain, arropa gehiena eskegita dutelako eta lehen begiratuan ikus daiteke-elako dena. Arropa gehiago eta neurri-aukera handiagoa dute orain, eta prezio askotako jantziak. “Arropak ez dauka adinik”, esan dute, bezeroekin izandako esperientzian oinarrituta. Adin guztietako emakumeak sartzen dira Garate jantzi-dendan eta guztientzako arropa daukate. Gertuko eta konfidantzazko tratua eskaintzen du Garatek, eta hori da denda txikien balio erantsia.

Ez daukate zalantzarik, “herriko dendarik gabe ez dago herririk” eta garai berrietara egokitzu euren apustua indartu dute. Internet baliatuz, esaterako, alaba Ainhoa eta Nerearen laguntzaz, erakusleho gisa erabiltzen dituzte sare sozialak; “24 orduz zabalik dauden erakuslehoak dira”.



115 urteko historia egin du jada Garatek. Lanaren fruitua, urteetako lanaren emaitza. Garaiak asko aldatu diren arren, Aintzane eta Ruth aurrera egiteko ilusioz eta gogoz daude. Aro berri honetan ere, irribarrea ahoan dutela hartuko dituzte bezeroak, beti egin duten bezalaxe.



GARATE
JANTZI-DENDA

Bisita ezazu udaberriko arropa
Garate Jantzi Denda berrian!

San Bartolome kalea, 13 behea • 943741129

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Pribatutasuna

Eta noski, sarean egiten dugun guztiaren erregistroa gordeta geratzen da.

Zertarako? Ba, itxuraz, informazio horrek guztiak sekulako balioa dauka. Diotenez, pertsona baten fitxak (Lead deiturikoak) 15€-a arteko balioa izan dezake. Hau ere erabilia, marketing enpresek publizitatea pertsonalizatzen dute. Hau da, gure interesen arabera eskaintzak egiten dizkigute eta, printzipioz, interesatzen ez zaigunarekin ez gaituzte gogaitzen. Horrela ikusita, denok irabazten dugula dirudi, ezta?

Hau dena iluntzen hasten da, ordea, informazio hori lortzeko moduak

aztertzean. Webgune askotan sartzean baldintza batzuk irakurri eta onartuaz gero ditzkigute. Bai, inork inoiz irakurtzen ez dituen parrafada luze horiek, 'Onartu' botoi erakargarri baten gainean. Horrelakoetan gure datuak bildu eta saltzeko baimena ematen ari gara askotan. Beste kasu batzuk okerragoak dira, baldintza horietatik at dauden erabilera ugari egiten baita. Zer esanik ez gure datuak biltzeko laguntza guk geuk ematen diegunean, gure diruz ordainduta gainera. Adibidez, gure etxeko hizketa guztiak entzun, grabatu eta dagokien enpresetara bidaltzen dituzten "asistentek": Alexa, Siri, Google...

Azkenaldian, bai estatuan eta baita Europa mailan ere legedia garatzen ari dira datu lapurreta hauen aurrean babestuta egon gaitzen, baina, horrenbeste diru mugitzen duen edozein negozioren kasuan moduan, legeon betetze-maila lotsagarria da.

"Eta noski, sarean egiten dugun guztiaren erregistroa gordeta geratzen da"

Azken urteotan Interneten erabilera gorakada nabarmena izan du, eta poliki-poliki (ala azkar-azkar) gure egunerokotasuna goitik behera aldatu da: duela hogeita urte existitzen ez ziren lanbideak dauzkagu, lanbide gehienetan egunaren zati handiena ordenagailu aurrean ematen dugu, eskola liburuen ordez ordenagailuak erabiltzen ditugu, Teleberriari eta egunkariei baino sare sozialei eta Interneti kasu gehiago egiten diegu, gero eta gehiago erosten dugu dendetara hurbildu gabe...



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaldua Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugeriza **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► M8, EMAKUMEAK GREBARA

Martxoak 8ko greba osotasunean gauzatu dadin laguntzeko prest gauden talde bat gara. Greba eskubideak babesteko, 8 urtera arteko umeen zaintza espazioa ahalbidetuko dugu arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Gure artean hezitzaile titulu-dun pertsonak izango ditugu. Zuen umea gurekin ekarri nahi baduzue, edo umea zaintzen dagoen gizona bazara, espazioa erabiltzera gonbidatuak zaudete. Umearentzako janaria eta jolasak zuek ekartzea eskatzen dizuegu.

Azkenik, Elgoibarko gizonok (ez baduzue inguruan zuen kargu hartu dezakezen lanik), martxoaren 8an gure ekimenarekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu. Idatzi mezu bat helbide honetara, eta jarriko gara zuekin harremanetan: m8gizonekzer@gmail.com.

Elgoibarko gizon boluntarioak

► LOKAL BERRIA

Kaixo, elgoibartar hori:

Eraiki nahi dugun Elgoibar zehazteko leanean buru-belarri jarraitzen dugu EHBildun. Bide horretan, auzoz auzo bilerak egiten hasi gara herritarren kezak, nahiak eta beharrak zein diren jakiteko.

Joan den astean, IMHn elkartu ginen auzoko herritarrekin. Oso bateragune interesgarria izan zen, eta balorazio positiboaren ostean, herriko beste auzoetara ere joango gara. Sigma, Urazandi, Pedro Mugarutza eta Altzolan izango dira hurrengo bilerak.

Bestetik, hauteskunde kanpaina ate joka daukagula-eta, aurten ere lokal bat izango du Elgoibarko EHBilduk. San Franzisko kaleko 11. zenbakian (Anton altzari denda zenaren lokalean) egongo da gure bilgunea hemendik aurrera. Gaur, 19:15ean ofizialki inauguratuko dugu lokala eta herritar guztiok gonbidatuta zaudete mokadutxoak jatera.

Eskerrik asko joan den astean gurekin

egon zineten guztioi eta gainerako elgoibartarroi hona hemen gonbita hurrengo bileretan eta lokalaren inaugurazioan parte har dezazuen.

Gaur arratsaldean elkar ikusiko dugulakoan, laster arte.

Elgoibarko EHBildu

► EZ ERRE GURE ETORKIZUNA!

Martxoaren 6tik 8ra *Change the Change* Klima Aldaketaren inguruko nazioarteko biltzarra egingo da Donostian, Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Espainiako Gobernuako Trantsizio Ekologikorako Ministerioak antolatuta.

Klima aldaketari erremedioa jartzeaz hitz egiteko *Change The Change* biltzar hau antolatzeak erakusten du larrialdi egoera batean bizi garela. Aurpegi askoko zibilizazio krisi batean bizi gara XXI. mende hasieran: krisi ekonomikoa, krisi sozial ugari, krisi politikoak, erregaiak eta baliabideak urritzearen krisiak, krisi humanitarioak... eta denak daude lotuta eredu sozial eta ekonomiko oker baten ondorioekin. Krisi guzti horiek larriagotuko ditu klima berotzeak, behin eta berriro munduko adituek ohartarazten digutenaz.

Jakin ezazue hemen, Euskal Herrian, Gipuzkoan, agintariak oso gaizki ari direla egiten gauzak, klimaren aldaketa erremediatzeko adituek aipatzen dituzten neurrien justu alderantzizkoak ari direlako hartzen gure agintariak. Donostia, Gipuzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko agintariak itsu-itsuan laguntzen dituzte klimarentzako kaltegarriak diren proiektuak, bideragarritasun ekonomikorik eta sozialik edukiko ez dutenak: Abiadura Handiko Trena, erraustegiak, lurraren artifizializazio masiboa, Donostian bertan lurpeko trenbide berri bat...

Hori dela-eta, Errausketaren Aurkako Mugimenduak elkarretaratzeak antolatu ditu martxoaren 5 eta 6rako Donostian os-

patuko den *Change the Change* biltzarren harira: martxoaren 5ean, Alderdi Ederren, eta martxoaren 6an, Kursaal, biak 19:00etan.

Animatu zaitzete! Ez erre gure etorkizuna!

A.I.

► EUSKARA JUBILATUEN BILTOKIAN

Jubilatuena Biltokiaren Bazkideen Batzarrean onartu den proposamenak honela dio: "Aurtengo urtean egon daitezela euskaraz ere idatzita eta erregistratuta elkarrearen estatutuak". Proposamen honek jasotzen dituen eskubide sozial eta kulturaletatik aparte, beharrezkoa daukagu euskara normalizatzea elkarrearen hizkeran eta idatzietan: elkarrean erabiltzen diren hitzak, oinarriko deiturak eta esanahiak estatutuetan aurkitzea. Zorionak Jubilatuen Biltokiko Zuzendaritza Batzordeari.

Jubilatuena Biltokiko zuzendaritza

► ELGOIBARKO IZARRAKO LANGILE EMAKUMEZKOOK GREBA EGINGO DUGU

Elgoibarko Izarrako langile emakumezkook bat egin dugu martxoaren 8rako deitutako grebarekin, iruditzen zaigulako emakumeok isilpeko lan handia egiten dugula, eta gure lanak ez duela behar besteko aitortzarik. Greba egingo dugu gure aurreko emakumei zor dizkiegulako gaur daukagun eskubideak eta guri ere badagokigulako gure eta gure ondorengo etorkizun hobea baten alde borrokatzea.

Elgoibarko Izarrako langile emakumezkook

Pilarren ehun lagunentzako zahar etxea eraikitzeko lankidetzak hasi dute Elgoibarko Udalak eta Foru Aldundiak

Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzak hitzarmena sinatu zuten atzo, Markel Olano ahal-dun nagusiak Elgoibarrera egin zuen bisitan. Pilar ikastetxea egon zen lurzorua emango dio Udalak Aldundiari, eta han 100 lagunentzako lekua edukiko duen zahar etxea eraikitzea adostu dute. Egoitza berria martxan jartzen dutenean, San Lazaro itxi egingo dute, eta eraikin hori Udalarik traspasatuko dio Aldundiari, bertan bizi guztirako etxebizitzak egiteko.

Aldundiak, beraz, zahar etxea eraikitzeko konpromisoa hartu du, eta era berean, lurrazpiko aparkalekua egiteko konpromisoa ere bai. Zahar etxe honi esker, Debabarreneko itxaron zerrendak jaitsi egingo direla adierazi zuen Olanok, eta Aldundiak adineko pertsonen ongizatean eta bizi-kalitatean duen konpromisoa berretsi zuen. Une honetan 38 laguneko itxaron zerrenda dago Debabarrenean. Horren harira, Legealdi amaierarako, zahar etxe eta eguneko zentroetan 361 plaza berri sortuko dituztela esan zuen. Ane Beitia Elgoibarko alkatea, bestalde, Elgoibarko Udalak adinekoen alorrean egiten



Iosu Arraiz Hirigintza zinegotzia, Maite Peña Gizarte Politikako diputatua, Markel Olano Ahal-dun Nagusia, Ane Beitia alkatea eta Blanca Larrañaga Ongizateko zinegotzia.

duen lana nabarmendu zuen, eta gaineratu zuen bere legegintzaldiko ardura nagusienetarikoa izan dela adinekoen ongizatea bermatzea. Hitzarmen honekin Elgoibarrek pausu garrantzitsua eman duela nabarmendu zuen.

EHBilduk lokala inauguratuko du gaur arratsaldean, San Frantzisko kalean



Elgoibarko EHBilduk hauteskundeetarako lokala inauguratuko du gaur, San Frantzisko kaleko 11. zenbakian, Anton altzari denda egon zen lokalean, alegia. Inaugurazioa 19:15ean izango da, eta ondoren, mokatuxoa emango dute. Herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Horrez gain, EHBilduk herritarren kezak, nahiak eta beharrak ezaigutu nahi ditu, eta horretarako, bilerak egingo dituzte azokan. Joan zen astean IMHn batu ziren hango auzotarrekin, eta datozen egunetan Sigman, Urazandin, Pedro Mugarutzan eta Altzolan egingo dituzte bilerak.

Abian, Lanbide Heziketako azoka, martxoaren 27tik 29ra

Martxoaren 27tik 29ra bitartean egingo da, Eibarren, bi urtetetik behin egiten den Abian Debabarreneko Lanbide Heziketa Azoka. Debabarreneko Udalek, Debelesa garapen agentziak eta eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe guztiek antolatzen dute azoka, elkarlanean. Azokak Jauriaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta eskualdeko honako enpresa hauen babesa eta laguntza jaso du: Alcorta, Bronymec, DanobatGroup, Egile, EPC, Haizelur, IK4-Tekniker, Sitab, Unceta eta Urkotronik.

Aurtengoa laugarren edizioa du azokak, eta aurrekoetan bezala, Eibarren egingo da, Armeria Eskolako patioan. Parte hartuko duten ikastetxeak, berriz, honako hauek izango dira: Armeria Eskola, IMH, Meka Lanbide Eskola, Kardala Akuakultura Eskola, Mutrikuko Institutua, Uni Eibar-Ermua, Eibarko Oinarrizko LH eta Ermua-Mallabiako Oinarrizko LH, eta uste da Debabarreneko DBHko eta Batxilergoko 700 ikasle baino gehiago pasatuko direla bertatik. Ikasleez gainera, publiko orokorrak ere zabalik izango du azokako atea. Azokan, hitzaldiak eta tailerrak ere izango dira, irekian eta doan.

Martxoaren 7an ekingo dio Errigorak Nafarroa hegoaldeko uzta eskutik eskura zabaltzeko kanpainari

Martxoaren 7an hasiko du Errigora ekimenak aurtengo bere lehen kanpaina, 5 urte maite duguna elikatzen lelopean, eta martxoaren 22ra arteko epea egongo da Nafarroa hegoaldeko produktuak eskatzeko. Oliba-olio birjina estra, kontserba-sortak eta arroza eskainiko dituzte, euskaraz etiketatuta, ekoizten dituzten herrietako olio-errotetan



edo kontserberetan duten zuzeneko prezio berean. Olioarekin batera, kamisetak ere eskainiko dituzte, 5 euroan. Errigora marka ikustarazi eta komunitatea indartzeko egin dituzte kamisetak, eta asmo horrekin eskainiko dituzte, dirurik irabazteko asmorik gabe. Elgoibarren eta Mendaron www.errigora.eus webgunearen bidez egin behar dira eskaerak eta aurrerago zehaztuko dute produktuak non jaso ahal izango diren. Nolanahi ere, olioak eta kamisetak apirilaren 5etik 17ra bitartean banatzea aurreikusten dute, eta kontserbak eta arroza maiatzaren 22tik 31ra bitartean (Gurean banaketa zein egunetan egingo duten ez dute zehaztu oraindik).

Seigarren urtea du hau Errigorak. 2013ko udazkenean du abiapuntua berez ekimenak, orduan ekin baitzion Zazpiak Bat Harreman Sareak Nafarroa hegoaldeko ekoizleen produktuak saltzeari, baina Errigora bera 2013ko urrian aurkeztu zuten,

AEK, Ikastolen Elkartea eta Sortzenekin batera. Kontsumo-ohituretan eragin, Nafarroa hegoaldean ekoiztutako produktuak saldu, eta bide batez, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko bidea zabaltu zuten orduan, eta esan gabe doa Errigorak urte hauetan lortutako diruak beste arnasa bat eman diola zonifikazioaren pean lanean ari den euskalgintzari.

Hemen, eskaintza:

- ◆ Oliba-olio birjina estra (5 l): 22 euro
- ◆ Oliba-olio birjina estra ekologikoa (5l): 32 euro
- ◆ Olio-barietate sorta (5Lx4): 108 euro
- ◆ Pikillo piperrak (425 ml-ko 12 ontzi): 32 euro
- ◆ Pikillo piper ekologikoak (250 ml-ko 12 ontzi): 36 euro
- ◆ Zainzuriak (425 ml-ko 12 ontzi): 43 euro
- ◆ Zainzuri ekologikoak (370 ml-ko 12 ontzi): 45 euro
- ◆ Orburuak (720 ml-ko 12 ontzi): 45 euro
- ◆ Orburu ekologikoak (720 ml-ko 12 ontzi): 77 euro
- ◆ Barazki-menestra (720 ml-ko 12 ontzi): 39 euro
- ◆ Barazki-menestra ekologikoa (720 ml-ko 12 ontzi): 64 euro
- ◆ Potxak (720 ml-ko 12 ontzi): 22 euro
- ◆ Potxa ekologikoak (720 ml-ko 12 ontzi): 29 euro
- ◆ Tomate frijitua (370 ml-ko 12 ontzi): 15 euro
- ◆ Tomate frijitu ekologikoa (370 ml-ko 12 ontzi): 17 euro
- ◆ Kremak (500 ml-ko 12 ontzi): 19 euro
- ◆ Crema ekologikoak (500 ml-ko 12 ontzi): 24 euro
- ◆ Arroza (lido) (1Kg-ko 12 pakete): 21 euro
- ◆ Arroz zuri ekologikoa (1kg-ko 12 pakete): 42 euro

Repsol gidako Eguzki bat Landa erretegiarentzat

Repsol Eguzki bat eman dio Repsolen turismo gidak Landa erretegiari. Michelin gidak nazioartean banatzen dituen izarren parekoak dira sariok Espainian, eta estreinakoz, Donostian egin dute aurten sari banaketa. Sukaldaritzako bikaintasunaren sinbolo dira Eguzkiak eta hiru Eguzki dira ematen duten aitorenpenik handiena. Repsol Gidak nabarmendu du Landa erretegia erreferentzia dela 1982az geroztik eta parrilan egiteko lehengai apartak eta sasoian sasoiko produktuak erabiltzen dituztela. "Asier eta Juan Mari Landa anaiek 36 urte baino gehiagoan eman diete jaten euren bezero fidelei, beti fundamentu handiko platerak prestatuz" jaso dute Landaren merezimenduetan. Asier Landak berak "pozarren" hartu du saria, bereziki produktua eta sukaldaritzaren tradizioa saritu dituztelako.



Zientzia eta teknologia
alorreko emakume bila
dabil Debegesa

Zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika alorrean lan egiten duten Debarreneko emakume bila ari da Debegesa, beraien lana agerian jarri eta sektore horrekiko bokatuzioa sustatzeko. Debarrena Stem proiektua jarri du martxan Elhuyarrek eta Foru Aldundiaren laguntzaz. Parte hartu nahi duten emakumeek 943 8201 10 telefonora deituta edo berrikuntza@debegesa.eus helbidera idatzita eskuratu dezakete informazio gehiago.

Herrialde lehiakorrago bat egiteko erreminta makinaren sektorea funtsezkoa dela esan du Iñigo Urkullu lehendakariak Elgoibarren

Erreminta makinaren museoaren 20. urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuten eguaztenean, eta Iñigo Urkullu Jaurilaritzako lehendakariak ere hartu zuen parte ekitaldian. Ohorezko aureskua dantzatu zioten ongi-etorria egiteko, eta ondoren, Museoa erakutsi zioten lehendakariari. Une hartan bertan ofizio tradizionalen erakustaldia egin zuten, karraskatzailearen, armagintzako grabatzailearen eta errementariaren ofizioak nola koak ziren ikusteko. Horrekin batera, Lamoten grabatuaren gaineko azalpenak ere eman zizkieten, eta museoan ohorezko liburuan sinatuz amaitu zuen bisitaldia. Lehendakaria, Hezkuntzako sailburu Cristina Uriarte, eta gainerako agintari eta enpresariak IMHko Alberto Ortueta aretora joan ziren gero, eta han egin zuten museoaren 20. urteurreneko ekitaldi instituzionala. 'Lamoten grabatua' liburua aurkeztu zuten, eta Lamoten grabatuak armen ekoizpen eta garapenean izandako garrantziaz jardun zuten. Iñigo Urkullu lehendakariak ere hartu zuen hitza, eta besteak beste, erreminta makinaren sektorea funtsezkoa dela esan zuen, herrialde lehiakorrago bat egiteko. Lehendakariarekin ba-



tera beste hainbat agintarik eta ordezkariak ere hartu zuten parte urteurren ospakizunean: Elgoibarko alkate Ane Beitia, Museoan aurreko zuzendari eta zuzendari berri, Pedro Ortuondo eta Bea Ansola, AFM Clusterreko ordezkari Xabier Ortueta, IMHko Zuzendari Ixaka Egurbide, Mondragon Kooperatibako Presidente Iñigo Ucín eta Danobat Taldeko Presidente Cesar Arriola.

Elgoibarko Udalak iaz aurreikusitakoa baino 453.000 euro gehiago jasoko ditu Foru Funtsetik, eta Mendarok, 79.000

Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik (UFFF) 2018ko likidazioa onartu du Diputatuen Kontseiluak. Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi zien joan zen otsailaren 15ean EUDEleko ordezkariari emaitza. Haren arabera, laugarren urtez jarraian hobetu du bere errekorra UFFF-k, iazko urtekoa ia %10ean gaituz eta aurrekontua ia %6an hobetuz [515 milioi euroko zuzkidurarekin itxi du 2018a]. Ondorioz, Gipuzkoako udalek 29 milioi euro gehiago jasoko dituzte. Gurera ekarrita, Elgoibarko Udalak iazko aurrekontuan aurreikusitakoa baino 453.628,84 euro gehiago jasoko ditu, eta Mendarokoak, berriz, 79.107,59 euro gehiago.

Atxutxiamaikaren eta Udal Ludotekaren udaberriko eskaintzan izena emateko epea martxoaren 4tik 17ra artekoa izango da

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea Elkarteko Atxutxiamaiak egitasmoak eta Elgoibarko Udal Ludotekak elkarlanean antolatu dute udaberriko aisia eskaintza, eta interesatuek astelehenerdik aurrera eman ahalko dute izena, hilaren 17ra arte. Eskaintza oparoa prestatu dute, HH2tik LH6ra arteko umeentzako. Eskaintza adin tarte desberdinetan banatuko dute, eta bakoitzak bere neurria eginiko programazioa izango du. Txokoak, SotoTK, egun pasa irteerak eta hainbat egunetarako egonaldiak prestatu dituzte, besteak beste.

Izen-ematea Elgoibarko Izarraren lokalean (Ubitarte 4, behea), edo Ludotekan (Gabriel Krutzelaegi 6, behea) egin daiteke, eta

Internetez www.elgoibarkoizarra.eus atarian. Elgoibarko Izarrako eta Udal Ludotekako bazkideek deskontuak izango dituzte. Era berean, familientzako deskontuak ere egongo dira: DSBI (RGI), DBE (AGI) eta GLL (AES) jasotzen duten familiek %70eko deskontua izango dute, eta familia ugariak, guraso bakarreko familiek eta bigarren seme-alabaren izene-matea egiten dutenek, berriz, %30ekoa. Arduradunek jakinarazi dute plazak mugatuak direla eta egonaldietako plazak zozketa bidez banatuko dituztela.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Elgoibarko Izarrako (943 741626) edo Udal Ludotekako (943 748 883) telefonotara deitu daiteke.



► PELLO RUBIO NEKAZARIA

“Nekazaritzan erabateko birmoldaketa behar da, eta hori administrazioak lideratu behar du”

Pertsona edo erakunde baten urteetako ibilbideari eginiko errekonozimendua jaso du Pello Rubio (Zumaia, 1948) Txillarrek Landaola Sarien bigarren edizioan. 40 urterekin makina erremintatik landa eremura egin zuen salto, eta harrezkero, 30 urtean aritu da nekazaritzari emana Elgoibarko Txillarre baserrian. Hantxe egin dugu hitzordua berarekin. Erretiroa hartzeaz dago, baina oraindik zati baterako indarra badauka, izan ere, gurekin bildu aurreko egunean mila landare landatu zituen. “Lasai” bizi da Txillarren, naturarekin harremanean. Haizea da entzuten den zarata bakarra, eta horrek berak ere, lasaitasuna transmititzen du. Etxeko atea zabaltzen dizkigu, eta bere ibilbideaz mintzatu gara, etxeko leihotik Sallobente bailara aurrez aurre dugula.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ **Ibilbide osoari erreferentzia egiten dion Landaola Saria jaso berri duzu. Zer suposatzen du sari horrek zuretzat?**

Pozik hartu dut. Baserrian egin ditudan 30

urteetako ibilbideari emandako saria izan da, batez ere, konpromisoari emandako saria. Baserri munduan eta elkarteetan lan egiteko izan dudana konpromisoa saritu

dute, azken batean, sektorearen tripetan lan egin izana. Nire izaera hori da, nire ADNan dihoa elkarlana. Industria munduan jardun nuenean ere, elkarteetan eta



sindikatueta parte hartzen nuen, nik horrela ulertzen dudalako bizitza. Konbentzita nago taldean bakarka baino hobeto egiten direla gauzak. Nekazaritza sektorean elkarte desberdinak zeuden ni iritsi nintzenean, eta hainbatetan hartu nuen parte, eta berriak ere sortu genituen, Biolur eta Ekonekazaritza, esaterako. Beste baserritarrekin elkarlana indartzeko aukera eskaintzen dute elkarteek, eta arazoan aurrera laguntza eskaintzen dute. Nekazaritzara iristen diren baserritar berrientzat ere babesa dira elkarteak, eta gure lana gizarteratzeko ezinbestekoak.

♦ **Zure ibilbidea ez da ohikoena. 40 urterekin industria utzi eta nekazaritzaren aldeko apustua egin zenuen. Pozik zaude hartutako erabakiarekin?**

Bai, dudarik gabe. Nik ez nuen inoiz pentsatu hemen bukatuko nuenik, ez nuen sekula eduki nekazaritzatik bizi-

“40 urterekin iritsi zitzaidan bizimodua aldatzeko momentua eta baserrira etortzea erabaki nuen”

tzeko ametsa, baina gauzak horrela suertatu ziren, eta bizitzan iristen da momentu bat aldaketak egiteko. Niri 40 urterekin iritsi zitzaidan bizimodua aldatzeko momentua, eta baserrira etortzea erabaki nuen. Hortik aurrera baserri mundua deskubritzen joan nintzen, zer ematen duen baserriak, nolakoa den baserriko bizimodua, eta sekulako deskubrimendua izan zen niretzat. Gaur egungo bizimodu azkar, presazko

eta zoro honen barruan, baserriak beste ikuspuntu bat ematen du. Norbere buruarekin eta naturarekin konektatuta zaude baserrian, lasai. Oso sektore interesgarria da hau. 30 urteren ostean esan dezaket esperientzia oso-oso positiboa izan dela. Oso gustura sentitzen naiz hemen, Txillarren, eta une honetan nire lan guztiaren etekinak jasotzen ari naiz. Iritsi nintzenean dena berria zen niretzat, dena neukan ikasteko, hipoteka ordaintzeko... Ilusioa eta ikasteko gogoia nituen, baina presioa ere handia neukan. Orain, aldiz, nekazaritza eta baserriaz gozatzen ari naiz; barrutik gustura sentitzen naiz. Baserria ez dira letxugak bakarrik; askoz gehiago da, eta baserriaz bere osotasunean ari naiz gozatzen.

♦ **Zure ibilbidean momentu batean ekologikoaren alde egin zenuen. Zergatik?**

Lehenengo bi urteetan nekazaritza konbentzionala lantzen nuen, baina konturatu nintzen torlojuak balira bezala ari nintzela barazkiak ekoizten. Jateko gauza bat ekoizten ari nintzen, baina prozesu horretan erabiltzen nituen produktuak osasunerako kaltegarriak zirela konturatu nintzen. Lurrari berari ongari kimikoa bota behar zitzaion, eta barazkiei ere hainbat produktu botatzen zitzaion kontserbatzeko. Eta gero jan egin behar genuen. Ez ninduen konbentzitzen, eta logikak esan zidan modu hura ez zela egokia. Nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaro bat egin nuen, eta argi ikusi nuen hura zela bidea. Ez da erraza izan, eta askotan baserritarrak eurak izan dira oztopo gehien jarri dizkigutenak, baina konbentzita zaudenean, aurrera egiten duzu. Gaur egun egoera normalizatu da, gizarteak onartzen du nekazaritza ekologikoa, bai baserritarrek eta baita administrazioak ere, baina denbora gehiegi behar izan dugula iruditzen zait.

♦ **Onartu duten arren nekazaritza ekologikoaren definizioak eztabaida handia sortzen du. Zuretzat zer da**

nekazaritza ekologikoa?

Nekazaritza ekologikoaren lehenengo baldintza da ingurumena zaintzea. Ez da berdina lurrari zimaurrea botatzea ala ongarri kimikoak botatzea. Ez da gauza bera ere barazkien kontserbaziorako produktu naturalak ala kimikoak erabiltzea. Ekologikoak natura zaintzen du, eta horregatik gaur egun gizartea sensibilizatuago dago orain dela 30 urte baino. Bestalde, nekazaritza ekologikoak osasuna zaintzen du, eta jaten duguna gara. Jendea ohiturak aldatzen ari da, gehiago zaintzen du bere osasuna eta horregatik leku gehiago hartzen ari da nekazaritza ekologikoa. Aldaketak ematen ari dira aspektu askotan, ez nekazaritzan bakarrik. Autogintzan ere aldatzen ari dira gauzak, ingurumena hasi delako gure jokabideen aurrean erantzunak ematen, gauzak gaizki egiten ari garela esaten.

♦ **Landaola Saria jaso zenuenean administrazioarekin haserre somatu zintugun. Zer egin behar du zure ustez administrazioak nekazaritzaren alde?**

Haserre ez nago, baina kritikoa naiz, eta uste dut administrazioak kritikak entzun behar dituela. Hala ere, argi daukat bereaiekin egin behar dugula lan eta bereaiek lideratu behar dutela hau. Baina elkarteetan lanean jardun dut urte askoan, eta nik ikusi ditudan beharrak edo defizitak azaleratu nahi nituen. Han aurrean nituen agintariak, eta nolabait esateko, baserriarren ahotsa izan nintzen. Ez naiz sekula izan zurikerietan ibili zalea, kritikoa izan naiz aritu naizen alor guztietan, eta uste dut kritikak egitea oso interesgarria dela, beste bisio bat ikusteko. Nire ustez, baserri munduan benetako birmoldaketa bat falta da, eta hori administrazioak lideratu behar du. Tantaka-tantaka aldaketak ematen ari dira baserriarrek, baina erabateko birmoldaketa eman behar da. Zer nekazaritza mota behar dugu hemendik 15 urtera Gipuzkoan, kontuan edukita, batetik, gure lurra aldapatsuak direla eta esplotazio txikiak ditugula, eta bestetik, kontsumitzaileak janari garbia eta gertuko produktua nahi duela. Gizartea aldatu

den modu berean aldatu behar da nekazaritza. Ez naiz sartuko ekologikoa edo ekologikoa ez dena sustatu behar den, baina gure kasuan, lur aldapatsuetan eta esplotazio txikietan ez badugu egiten lehenik produzitu, gero elaboratu eta, azkenik, saldu, zaila daukagu. Ezin dugu Nafarroako edo Arabako nekazarietan lehiatu, eta zer esanik ez, Andaluziakoekin. Kalitate handiko produktua eskaini behar dugu, bestela, jai daukagu. Administrazioak definitu egin behar du hemendik 15 urterako zein nekazaritza eredu nahi duen, eta eredu horretara joateko laguntzak eman behar ditu.

“Haserre ez nago, baina kritikoa naiz, eta uste dut kritikak entzun behar dituela administrazioak”

♦ **Etxeko apalak sariz beteta dituzu. Ondo egindako lanaren emaitza?**

Bai, sari horiek egindako lanaren errekonozimendua dira. Sariak jasotzea denoi gustatzen zaigu. Beste batek irabazten badu, merezi duelako izango da, eta oso ondo, baina nik irabazten badut, hobeto, jakina. Ez naiz edozein modutan joaten azoketara. Landu egiten dugu, izan ere, lanik gabe ez dago ezer mundu honetan; ez nekazaritzan, ez industrian eta ez beste inon.

♦ **Erretiroa hartuko duzu, eta alabak hartuko dizu erreleboa.**

Bai, berak hartuko du, eta ni pozik nago. Nik oraindik soka pixkat badaukat, baina erreleboa prestatzen ari gara. Errelebo generazionala izango dugu gurean, baina hurrengo 15 urteetan baserri pila bat itxi egingo dira, errelebo generazionalerako laguntzarik apenas dagoelako. Demaseko lana eta ahalegina egin duten baserriak itxita geratuko dira betirako. Biolur elkartetik ikusten ari gara kaleko jendea hasi dela baserrietan sartzen, baina jende horrek

ez dauka esplotaziorik, lursailik eta askotan dirurik ere ez, eta administrazioak jende horri lagundu beharko lioke, baserrien etorkizuna ziurtatzeko. Ez dut esan nahi kaleko jende guztiak baserriera etorri nahi duenik, ezta gutxiagorik ere. 70eko hamarkadan baserrietik kalera jaitsi zen jende gehiena industrian lan egitera, eta orain, askoz neurri txikiagoan, baina alderantzizko joera nabaritu dugu. Badaude kaletar batzuk baserrian lan egiteko prest, eta horiei lagundu egin behar zaie. Gu Txillarrek aurrera jarrai dezan ahaleginduko gara. Alabak erakutsi du interesa, berak aukeratu du bere etorkizuna, eta ni pozik nago. Nik ez dut derrigortu, ez naiz horrelakoa. Nik neuk aukeratu nuen nire bizimodua eta uste dut pertsonen utzi egin behar zaiela beren bidea aukeratzeko.

♦ **Errelebo generazionala ez dela erraza aipatu duzu. Izan daiteke gazteak ez daudela prest baserriko bizimodurako?**

Baserriko bizimodua gogorra dela esaten didatenei beti esaten diet niretzako askoz gogorragoa dela zortzi orduz makina batean lanean jardutea edo bulego baten ordenagailu aurrean lan egitea. Gustuko lekuan, aldaparik ez dio esaera zaharrak, eta hori horrela da. Gustura egiten duzun lana ez da gogorra. Baserriko lana neketsua dela? Bai, bada, baina tailerlean lan egitea ere bai, arotza edo igeltseroa izatea ere bai... Gogortasuna norberaren buruan dago. Ni Txillarren zoriontsu naiz, lasai bizi naiz, naturarekin harremanean, neu bakarrik nago eta ez diot inori azalpenik eman behar. Gorputzak agintzen didana egiten dut. Lanerako gogoia badaukat, lan egiten dut; aldiz, sutodondono eserita egoteko gogoia badaukat, ba egun horretan ez dut lanik egiten. Lagunek askotan esaten didate oporretan batera edo bestera joateko, baina ni Txillarren baino hobeto ez naiz inon sentitzen. Oporretan egotea leku baten gustura egotea da, eta leku hori niretzat Txillarre da.



Martxoak 8, zaintzari ikusgarritasuna emateko eguna

Emakumeen Nazioarteko Egunean greba egitera deitu ditu emakumeak* [heteropatriarkatuak zapalduko subjektuak: emakumeak, bollerak eta transak] mugimendu feministak eta deialdiarekin bat egin du gehiengo sindikalak: ELAk, LABEek, ESK-k, Steilasek, EHNEk, Hiruk, CGTk eta CNTk. Bost ardatzetan oinarritu dute arden greba, ikasleak, enplegua, pentsiodunak, kontsumoa eta zaintza, eta hain zuzen ere azken hori, zaintzaren gatazka, jarri dute zentralitatean. Ohartarazi dute zaintza ardurak koletitboa dela, baina salatu dute pertsonen zaintza zapalduen bizkar gelditzen dela beti. Horregatik, zaintzaren "berrantolaketa soziala" egitea eskatu dute. 24 orduko greba da antolatu dutena, eta lantoki eta ikasgeletan greba egitera, mobilizazioetan parte hartzera eta zaintza lanak albo batera lagatzera deitu dute. Greba irudikatuzeko, berriz, balkoietan eta leihoetan amantalak eskegitzea proposatu dute eta besoko moreak eta txapak jaztea. Labur esanda, "eguneroko normaltasuna apurtu" nahi dute. Gizonak ez daude berez grebara deituta, baina haien zaindariak bada eskaerarik: zaintza lanen ardurak bere egiteko, eta lantoki zein herrietan zaintza gune komunitarioak antolatzeko.

Martxoak 8ko ekintzak

Greba izango da, beraz, martxoaren 8rako iragarritako protesta ekintza nagusia, baina mobilizazioak ere izango dira gure herrietan. Elgoibarren, esaterako, elkarretaratzeak antolatu dituzte 12:00etarako eta 19:00etarako, Kalegoen plazan. Era berean, gizon talde batek 8 urte arteko umeentzako zaintza zerbitzua antolatu du martxoaren 8rako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan sortuko dute zaintza espazioa eta zaintza zerbitzuan laguntzeko eskaera egin diete egun horretan euren kargu umerik ez duten gizonen. Prest daudenek m8gizonekzer@gmail.com helbidera idatzi behar dute. Mendaron, berriz, elkarretaratzea antolatu du Tratu Onen Aldeko Taldeak 12:00etarako Herriko Enparantzan, eta arratsalderako, Eibarren egingo den manifestaziora elkarrekin joateko gonbidapena egin du.

Hala ere, bestelako ekintzak ere antolatu dituzte martxoaren 8aren harira udalek eta herriko eragile ezberdinek, elkarlanean.

ELGOIBAR.....

Gaur, martxoak 1, 20:00

- ◆ Narrutsik-ek antolatuta herriko emakumeek elkar ezagutzeko batzar irekia Kultur Etxeko hitzaldi-gelan.

Martxoak 4, astelehena, 17:00

- ◆ Ipuin kontalari musikatua HH5 eta LH1 koentzat, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

Martxoak 7, eguna, 21:30

- ◆ 'Quién te cantará' filmaren emanaldia, Herriko Antzokian.

Martxoak 9, zapatua, 9:00-12:00

- ◆ Autodefentsa tailerra emakumeentzat. Kiroldegian.

Martxoak 9, zapatua, 12:30 / 15:00 / 20:00

- ◆ 12:30ean, Sustrai akordeoi taldearen kontzertua, Kultur Etxeko Sotoan.
- ◆ 15:00etan, bazkaria eta dantzaldia Sigma jatetxean.
- ◆ 20:00etan, Helduentzako ipuin musikatua: *Munduko emakumeak*. Kultur Etxeko Sotoan.

Martxoak 11, astelehena, 18:00-20:00

- ◆ 'Berdintasuna denon kontua da' saioa Zipriztintzekoekin, berdintasunaren aldeko Ermuko gizon taldekoekin. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Martxoak 15, barixakua, 21:30

- ◆ Zine foruma. 'Las sufragistas' filma ikusi eta komentatuko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Martxoak 20, eguaztena, 18:00

- ◆ 'Tratu ona adineko pertsonen' solasaldia Maria Jesus Goiekoetxearekin, Musika Eskolako auditoriumean.

MENDARO.....

Martxoak 9, zapatua

- ◆ Trinitate parkea morez jantziko dute Gaztelekukoek.

Martxoak 13, eguaztena, 17:30

- ◆ Estibaliz Gonzalez ipuin kontalaria, Ludotekan. Herri osoarentzat

► IKER USON

GIZARTE LANGILEA, BAKEGINTZAN ESPEZIALIZATUA

Bizikidetza Taldeak antolatutako ‘Gazteria, memoria eta transmisioa’ izeneko mahai-inguruan parte hartu zuen martitzenean Iker Uson (Tolosa, 1979). Gizarte langilea da Uson, bakegintzan espezializatua, eta Deustuko Unibertsitateak plazaratu zuen ‘Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubiden urraketek buruz gazteek dakitena eta duten diskurtsoa’ ikerketa zuzendu zuen. 1960tik 2010era gertatu ziren urraketan inguruan galdetu zieten unibertsitateko ikasleei.

- AINARA ARGOITIA -



“Baldintzak sortu behar ditugu denok autokritika egiteko eta onartzeko bakoitzak zer egin duen”

◆ Zer dakite gazteek gatazkaz?

Gazteez ari garela beti dugu joera ikuspegi kritiko batetik hitz egitekoa, kontu negatiboak nabarmentzekoa, eta kasu honetan beste horrenbeste gertatzen da. Gatazkaz ezer gutxi dakitela esan ohi da, interesik apenas dutela, baina gezurra da. Pedro Arrupe Institututik egin genuen ikerketak erakutsi digu interesa badutela, nahiz eta gatazkaren gaia beste gai batzuekin harremanean jar-tzean, ikusten dugun beste gai horien aldean interes apalagoa dutela gatazkaren inguruan. Genero indarkeria eta pobrezia kontuetan interes handiagoa agertu zuten adibidez, baina horrek badu bere logika, galdetu ere orokorrean galdetu genielako guk giza eskubideen urraketek eta gai horiek gertukoagoak dituzte-lako. Eurek jaino aurretik izan ziren gertaera jakinez galdetu genien gazteei eta nabarmendu behar duguna da erantzunetako asko zuzenak izan zirela, nahiz eta esanguratsuak diren baita ere askok agertu zituzten zalantzak.

[Adibidez, ikerketa horretako ondorio nagusietan jaso dute ikasleen %50ek ez dutela informazio nahikorik Hiperkorreko atentatua zer izan zen definitzeko, baina %44k badakitela zer gertatu zen. Lasa eta Zabala kasua zer den, berriz, zuzen definitu zuten %54k, baina ez dirudi %32 hori egiteko gai direnik, ‘ez daki, ez du erantzuten’ hautatu zutelako. ETAren ekintza izan erantzuten zuten %13k. Beste adibide bat: Ikasleen %53k badaki Miguel Angel Blanco ETAk bahitu eta hil zuela, eta %40k ez dirudi informazio edo ezagutza hori duenik. %55ek ongi dakite zer izan zen GAL, baina %38k ‘ez daki, ez du erantzuten’ aukeratu zuten].

Nahasmendua badago, baina ez nuke esango Espainiako komunikabide askok aipatu zuten amnesia konturik dagoenik. Isilean sufritu dugun kontua izan da gatazka, gai tabua sarri, eta

iruditzen zait hori horrela izan dela kontuan hartuta, horren gutxi ere ez dakitela gure gazteek eta aukera polita dugula haiekin lan egiteko. Eta beste gauza bat ere esango dizut. Gustura jakingo nuke helduok zer dakigun gerra zibilaz edota elgoibartarrek ba ote dakiten Elgoibarren zenbat jende hil duten. Errazegi jarduten gara gazteez.

◆ ‘Nola bizi dute egoera hau gatazka bizi izan ez dutenek’ galderari erantzungo diezue. Gatazka bizi izan ez dutenez ari bazarete, zer ondorioztatu behar dugu, bizi dugun hau bakea dela?

Ez. Horri buruz zuzenean galdetu genien gazteei eta gehiengo batek ezetz erantzun zuen. Nik esango nuke, hala ere, galdera horri gutako bakoitzak erantzun behar diola, baina esango nuke baketik nahikoa gertu gaudela, gutxienez nik irudikatzen dudana baketik. Hala ere, argi daukat gatazka ez dela amaitu, bakea ez delako talde terroristek edo indar polizialek lehen egiten zuten sarraskeri guztia amaitzera mugatzen. Daukagun espetze politika, daukagun adierazpen askatasun urria, autodeterminazio eskubidearen ukazioa edo ‘Gara’k bizi duen egoera ere indarkeria dira. Puntu honetara iritsita, azpimarratu nahi dut gazteen artean balio etikoek nahikoa oinarri sendoa dutela, indarkeriaren erabilerarekiko diskurtso kritikoa duelako gehiengo handi batek.

◆ Galdetegia erantzun duten gazteen %53k uste dute euren interesa gurasoena baino apalagoa dela jaso duzue ondorioetan, eta hedabide batzuek interpretatu dute gazteek itxiztat eman dutela gure historiako etapa bat.

Gazteek pertzepzio hori dute, bai, baina gero ez dago hori arrazoitze indikadore objektiborik, beraz bigarren hori esatea gehiegi esatea da. Esango nuke helduen artean gehiago eman

“Indarkeriaren erabileraren inguruko diskurtso kritikoa du gazteen gehiengo handi batek”

dela hori, baina ez daukat hori frogatzeko daturik. Iruditzen zait euskal gizartearen parte handi batek pasatu duela orrialdea, azkarregi. Begira zer gertatu zitzaigun Trantsizioarekin ere!.

♦ **Gertatutakoaren inguruko informazioa jasotzeko orduan hiru-iturri nagusi izan dituzte gazteek: hedabideak (%68), familia (%59) eta gizarte sareak eta Internet (%54).**

Zer balorazio egiten duzu horri buruz?

Hor hipotesiak bete egin dira. Gertatutakoaren inguruko informazioa jasotzeko bide nagusietako bat familia izan da, eta eskola oso gutxi aipatu dute. Eta horrek erakusten digu eskolak zer nolako zailtasunak izan dituen gai hauek lantzeko. Familia denean informazio-iturri nagusia, informazioaren transmisioan elementu subjektiboek -esperientziak, bizipenak...- garrantzi handia izaten dute. Gertatutako kontuak seme-alabei kontatu dizkiegunean geuk edo ingurukoek bizitakoetatik kontatu dizkiegu. Eta hori ere egin behar da, jakina, baina hori gehiago dago lotuta errelatoari edo bizipenei, gertakariari baino. Errelatoa ere jaso behar da, baina gertakariaren kontakizun hutsetik argi berezita. Edozein kasutan, kontu bat azpimarratu nahiko nuke: gazteen %60k adierazi dute ez daudela batere gustura jaso duten informazioarekin.

♦ **Nork eta nola kontatu behar die gazteei gertatu dena, kontatu behar duguna adosteko ere arazoak ditugula kontuan hartuta?**

Nik esango nuke denok dugula dezente egiteko, familiarik hasita. Bi iturri ezinbesteko ditugu transmisiorako: familia eta eskola. Prozesuak eta metodologiak ezberdinak dira, baina, batean eta bestean. Familian norberak erabakiko du zer kontatu, eta eskolan, adostu egin beharko da, eta hor, adostasun politikoa falta da, polemikan sartuta ibili garelako. Baina adibidez *Adi-adian* programa oso interesgarria da, eta bide-erakusle izan daiteke [Eusko Jaurlaritzak sustatutako programa da, ikastetxeetan biktimen testigantzak jasotzen dituen].

♦ **Nola baloratzen duzu hezkuntza esparruan egin dena?**

Guk uste baino gehiago egin dugu. Gatazkan bizi izan diren edo diren beste herrialde batzuekin alderatuz gero, Kolonbia edo Irlandarekin esaterako, oso aurreratuta gaude, han ez zitzaielako bururatu ere egingo biktima bat eskolan sartzea. Asko egin dugu, batez ere biktimen borondate onari eta ikastetxe batzuen ausardiari esker. Egin ditugun ekimenetan, gainera, biktimek eurek airtortu dute asko jaso dutela eta ikasleek ere eskertu dute, konturatu direlako jaso dutena *autentikoa* dela. Halako saioretan konturatu dira bere sufrimenduaren berri ematen ari den pertsona hori biluzten ari dela euren aurrean eta ez dago hori baino bide eraginkorragorik gatazkaren ondorio larriez jabetzeko. Eskola oso leku aproposa da, gainera, halako saioretarako. Beren lekukotza emateko prest dauden biktimak falta ditugu sarri, ez baita erraza bizi-tako krudelkeriak gogoratzea, baina zorionez, gero eta ikastetxe gehiago daude prest programan parte hartzeko.

♦ **Memoria egiteak berak sortzen du sarri gatazka. Nola kudeatu behar dugu memoriaren gaia?**

Memoria egitea beti eta edonon da zaila, eta hori onartuta ekin behar diogu lanari. Memoria egin behar dugu bizikidetzan sustatu eta dauden minak ixteko, baina sarri norbere errelatoa bestearen gainetik jartzeko egiten dugu memoria. Bestea umilatzea eta

makurraraztea bilatu da sarri memoria ariketekin; bestea barkamena eskatzera derrigortzea. Eta ez, hori ez da bidea. Baldintzak sortu behar ditugu denok autokritika egiteko eta onartzeko balioak zer egin duen. Memoria lantzean hiru gauza hartu behar ditugu kontuan: zer den gertatu dena -hobeto edo okerrago Elgoibarren egin dutena-, gertatu den hori bakoitzak nola bizi izan duen jasotzea eta gertatutakoaren analisi etikoa egitea. Zergatik gertatu da hori? Zer dugu egiteko berriro gertatu ez dadin? Galdera horiei erantzun behar diegu ezinbestean. Hiru puntu horiei heldu behar diegu, onartuta erabateko kontsentsua lortzea oso zaila izango dela.

♦ **Zer da eskatu dezakegun minimoa?**

Giza eskubideen urraketak egiten dituztenek onartzea egin dutena oker dagoela eta konpromisoa hartzea berriro ez egiteko. Eta gero, jakina, konpromiso hori nonbaiten jasotzea. Barkamena eskatzen baldin badute, oso ondo, baina hori ezin zaio inori exijitu. Erabaki pertsonala da hori.

♦ **Eurentzat propio sortutako ekimenak falta direla diote gazte gehien-gehienek eta unibertsitatean ere eskaini beharko liraketeela terrorismoarekin eta giza eskubideen urraketekin lotutako jarduerak. Bada gabezi bat, ezta?**

Bai. Unibertsitatean ere ari dira pausoak ematen, baina unibertsitatearen beraren ezaugarrietatik, ez da horren erraza. Ezin gara unibertsitatean joan eskolara moduan, esanez 'zuek jarri hor, neuk kontatuko dizuet eta zer gertatu den eta zer egin den oker'. Izpiritu kritikoa sustatu behar dugu eta ikasleen parte-hartzea sustatu. Gai honek ematen du horretarako bidea, baina batzuetan ausardia falta zaigu. Gai serioa da, eta hanka sartzeko beldur handiegia dugu. Nolanahi ere, esperientzia batzuk jarri dira martxan, *Adi-adian* programa bera eta Memoria plazan erakusketa, adibidez, eta balorazioak oso positiboak dira. Bidea hori da.

♦ **Gertatu dena jakitzea nahikoa berme al da berriro gertatu ez dadin?**

Ez. European faxismoak hartu duen indarra da horren erakusgarri. Horregatik diot balorazio etikoa egin behar dugula. Gertatu dena geure egin behar dugu pertsonok eta oker egindakoez go-goeta egin. Izugarri kostatzen zaigu, baina, inork ez duelako nahi gerorako geldituko den argazki horretan gaizki agertzerik. Hala ere, gazteek errazago dute beharbada, kulpa-sentimendu hori ez dutelako horren bere sentitzen, distantzia kontuarengatik. Oinarriko distantzia hori badute gazteek, gaizki egin dena gaizki egin dela esateko.



Kontzertu berezi eta desberdina emango du gaur gauean Sinuösek, inauterietako egitarauaren barruan

Gaur hasi da mozorroen festa Elgoibarren, Elgoibar Ikastolakoen Euskal Inauteriarekin. Mailaka, euskal inauterietako pertsonaien mozorroak jantzita, egin dute kalejira Ikastolatik Kalegoen plazaraino, eta han dantzan egingo dute. Gauean izango du festak segida, Sinuöseren inauterietako kontzertuarekin. 23. urtez irtengo dira Patxi Zabaleta eta Iban Urizar Sinuöseko kideak kalera inauterietan, eta urtero bezala, kontzertu berezi eta desberdina emango dute. *Sotoak ireki* izango da aurtengo emanaldiaren leloa, *Arteak Ireki* mugimenduari keinu eginez. Otsailaren 5ean onartu zuten Eusko Jaurlaritzak ikuskizun publikoak eta aisialdi jarduerak arautzen dituen dekretu berria, eta onartutako arauen artean, taberna eta areto txikien jarduerak antolatzeke gaitasuna mugatzen duena dago: gehienez, hilean bi ekitaldi egin ahalko dituzte, eta urtean, hamabi. Hainbat kulturgile eta ostalari *Arteak Ireki* plataforman batu dira neurri honen aurka egiteko, eta Sinuöseko kideek ere babeserakutsi nahi diete. Kontzertu asko eman dituzte Sinuöseko kideek tabernetan, eta eurek antolatzen dituzten kontzertuetako babesle dira, besteak beste, Iriondo, Lanbroa, Tantata, Salento, Gabi eta Mendaroko Uztargi tabernak. "Hein batean, kultura sortzen laguntzen dute tabernekek ere, eta Eusko Jaurlaritzaren lege horrekiko desadostasuna agertu nahi dugu, gure ustez kultur ekintzak ezin direlako mugatu". 22:30ean hasiko da kontzertua sotoan, eta ohi bezala, sorpresak iragarri dituzte.



Egitarau zabala

Bihar izango da inauterietako egun handia Elgoibarren zein Mendaron, eta dagoeneko prest dituzte bi herrietako egitarauak. Mendaron eguerdian hasiko da festa, Bizi-Poza txarangarekin, eta arratsaldean diskoteka eta txokolate jana egingo dituzte frontoian. Elgoibarren, berriz, Atxutxikaraokea antolatu dute arratsalderako, eta gero, mozorroen desfilea egingo dute, Mauxitxa txarangarekin. Gauean Fan&go taldearekin erromeria egongo da. Martitzenean, berriz, mozorroen elkartzea egingo dute Kalegoen plazan, eta umeentzako ikuskizuna egongo da. Mauxitxa Txaranga girotuko ditu gero kaleak. Mendaron ere, mozorro tailerrak eta musika ez da faltako. Egitarau guztia agendan duzue.

ZOZKETETA



Bidali inauterietako argazkiak eta jasotzen ditugun guztien artean **ERRIGORAK emandako BI OTAR zozketatuko ditugu.** **BARREN**en, martxoaren 15eko zenbakian emango dugu irabazleen berri.

Argazkiak bidali helbide honetara: **barren@elgoibarkoizarra.eus**
Argazki guztiak **www.barren.eus** webgunean zintzilikatuko ditugu.



Prest daude Elgoibarko musikarientzako entsegu-gelak

Elgoibarko Udalak herriko musikarientzako entsegu-gelak egin ditu Pedro Mugurutzako ikastetxea zen eraikinaren sotoan. Bost entsegu-gela prestatu dituzte, eta erabiltzeko moduan daude dagoeneko. Hogei metro koadro ditu gela bakoitzak, eta denak behar bezala intsonorizatuta daude. Elgoibarko Musikarien Elkarteak (EME) kudeatuko ditu lokal horiek, beraz, erabiltzeko interesa duten musikariek izena eman beharko dute elkartearen. Kultura Sailak hogeitaz talde eta bakarlari inguru ditu identifikatuta, entseguak egiteko leku egokirik ez dutenak. Musiki horiei lagundu eta entseguak egiteko zuten arazoari irtenbidea emateko eraiki dituzte entsegu lokalak. Udalak 153.000 euroko (B.E.Z. kanpo) inbertsioa egin duela zehaztu du. Udaleko arduradunek esan dute etorkizunean herrian antolatuko diren kontzertuetan lokal hauetan entseatuko duten musikarientzako parte-hartzea sustatzen saiatuko direla.



Emakume bertsolarien testigantzak bildu ditu Uxue Alberdik 'Kontrako eztaeritik' liburuan

Uxue Alberdi idazle eta bertsolari elgoibartarrak hamabost emakume bertsolari elkarrizketatu ditu *Kontrako eztaeritik* libururako (Lisipe bildumako bosgarren zenbakia da). Bertsolaritzan emakume asko ari diren pertzepzioa gero eta zabalduago dago, baina datuek, aldiz, ez dute hori erakusten. Bertsolaritza praktika sozial bat da, eta praktika sozial oro bezala, gure garaiko botere harremanen dispositiboa da. Hala adieraziko dute Alberdik elkarrizketatu dituen hamabost bertsolariek.

Elgoibarko dantzariak Beasaingo Aurreku Txapelketan izan dira

Beasaingo Aurreku Txapelketa jokatu zen asteburuan, eta Elgoibarko Inazio Beziartua musika eskolako dantzariak ere hartu zuten parte bertan. Zapatuan Eneko Etxaniz eta Jon Etxeberria leihatuz ziren, eta domekan, Maddalen Oñederra, Markel Goenaga, Aimar Almortza eta Jone Gil. Domekako txapelketa, gainera, Jone Gilek irabazi zuen. Osterantzean, dantzari guztiek maila ona eman zutelaz zehaztu dute arduradunek. Hurrengo txapelketa Oiartzunen jokatuko dute, martxoaren 10ean, eta bertan egongo dira, Elgoibarko Aimar Almortza, Markel Goenaga eta Malen Galarraga.



'Erlauntza' antzerkia taularatuko dute gaur, Herriko Antzokian

Vaiven Teatroak Erlauntza antzezlan taularatuko du gaur iluntzean Elgoibarko Herriko Antzokian. Txikitako lagun kuadrilla bat asteburu pasa joango da landetxe batera, berrietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak, baina, ez dira alferrik pasatzen, eta asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat nahasten direnean. Esaten da erleak direla animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak, eta dantzan komunikatzen omen dira. Malkoak eta irriak baimenik gabe nahasten diren komedia mikatza da. 20:30ean hasiko da emanaldia.



Iñaki Beasain txapelkunorde Euskadiko atletismo txapelketan, 800 metrokoan

Donostiako Belodromoan jokatu zuten otsailaren 23an pista estaliko gazte mailako Euskadiko Atletismo Txapelketa. Aurreko astean Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen Iñaki Beasain 800 metroko lasterketan lehiatu zen, 20 urtez azpikoen mailan. Mintxeta atletismo taldeko kideak bigarren egin zuten oraingoan, 2:03.85 denborarekin. Super Amara Bidasoa Atletismo Taldeko kidea den Ander Armendiak sasoi betean dagoela erakutsi zuen Euskadiko txapelketan. Esprinter elgoibartarrak lau alditan ondu zuten bere marka pertsonala, lehiatu zen bi probetan: 60 metrokoan eta 200 metrokoan. 60 metroko lasterketako finalerdietako kanporaketan 7 segundo eta 37 ehunekoan korritu zituen 60 metroak. Finalean ehuneko batean ondu zuten bere marka pertsonala (7:36) eta bosgarren postuan sailkatu zen. Armendiak 200 metroko lasterketan ere hartu zuen parte. Finalerdietako kanporaketan bere seriea irabazi zuen bere markarik onena eginda (23:21). Finalean hiru ehuneko jan zizkion finalerdietan eginko denborari eta 23 segundo eta 18 ehuneko denborarekin hirugarren postuan sailkatu zuen Armendia. Eider Iglesias mendarorarrak brontzezko domina irabazi zuen luzerako jauzian, 20 urtez azpikoen mailan. Gipuzkoako txapelketan egin zuen moduan, azken saiakeran lortu zuen emaitzarik onena, seigarren jauzian. Bost metro eta hamalau zentimetroko jauzia egin zuen, eta podiumeko hirugarren kaxoira igo zen.

Bestetik, Anwar Elhassouni elgoibartarra seigarren postuan sailkatu zen Eskolarteko Euskadiko Kros Txapelketan. Elhassounik Gipuzkoako selekzioa ordezkatu zuen Ortuellan jokatu zen lasterketan.



Elgoibar Sasoian zerbitzua anbulatorioan ere emango dute

Udalak jarduera fisikoa era sistematizatu eta kontrolatu egiten laguntzeko helburuarekin jarri zuten martxan duela urtebete Elgoibar Sasoian Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua. Orain, erabiltzailengana gehiago gerturatzeko, anbulatorioan ere emango dute zerbitzua, Udal Kirol Patronatuak jakinarazi duenez. Martxoaren 5etik aurrera izango da, eta martitzenetan emango dute, 10:30etik 12:30era bitartean (odol ateratze gelan). Doakoa da zerbitzua eta Mintxetan ere ematen dute, astelehenero, 17:00etatik aurrera, eta eguenetan, 10:30etik 12:30era. Ordua eskatu behar da zerbitzua ematen duen teknikariarekin batzeko. Telefonoz (943 744 415) edo e-postaz (elgoibarsasoian@elgoibar.eus) eskatu daiteke zita.

Iñigo Lariz bosgarren izan da Apuko Igoeran



Enkanterrietan jokatu zuten Apuko Igoeraren hamabigarren ekitaldia, Gueñesko Zaramillo auzoan zehazki. 23 kilometroko mendiko trail lasterketa da, 1.100 metroko desnibel positiboa duena, eta mendiko bizikletan edo oinez egin daiteke. Iñigo Lariz mendiko bizikletarekin lehiatu zen, aurten Elgoibarren sortu duten Gobike master mailako txirindularientzako taldea ordezkatzu. Izan ere, errepidean aritzeaz gainera, mendiko bizikletako zenbait probetan lehiatzeko asmoa ere badute zenbait taldekidek. Larizek bosgarren postua eskuratu zuen 1:24:47ko denbora eginda.


Aitor Gallastegi nagusi, Danobat Iriondo xake txapelketan

Iazko urrian hasi zen VII. Danobat Iriondo xake txapelketa aurreko astean amaitu zen. Hilabeteotan 30 xakelari aritu dira lehian Iriondo tabernan eta Elorrioko xakelari Aitor Gallastegi eta Juan Manuel Navarro elgoibartarra ailegatu ziren finalera. Gallastegik irabazi zuen finala, iaz lortutako bigarren postua onduz. Gallastegik bederatzigarren garaipen lortu ditu txapelketan, tablak egin ditu beste bi partidatan eta partida bakarra galdu du. Hirugarren postua lortzeko partidaren Felix Mansok irabazi zuen Tomas Conderen aurkako partida.



Maite Maiorak laugarren egin du mendiko eskiko kronoigoerako Euskal Herriko Txapelketan

Bandres-Karolo proba jokatu zuten asteburuan Izaban, Mendiko Eskiko Euskal Herriko Txapelketa jokoan zela, bai banakakoa eta baita kronoigoerakoa ere. Elgoibarko eta Mendaroko hiru eskiatzailek hartu zuten parte. Maite



Maiora, Ainhoa Lendinez eta Arkaitz Irureta izan ziren Morkaikoko eta Lizarpeko ordezkariak. Maite Maiorak bosgarren postua lortu zuen bakarkako proban eta Arkaitz Irureta 15. postuan sailkatu zen. Domekan jokatu zen kronoigoeran lan txukuna egin zuen Maiorak, eta laugarren egin zuen. Podiumera igotzetik bi segundora gelditu zen Igone Camposek irabazi zuen proban. Ainhoa Lendinezek domekako proban bakarrik hartu zuen parte, eta atzetik aurrerako lasterketa egin ostean 10. postua lortu zuen. Iruretak 14. postua eskuratu zuen kronoigoeran.



Sanloren Eskubaloi Campusean parte hartzeko izen-ematea zabalik

Sanlok jakinarazi duenez, zabalik dago 8. Eskubaloi Campusean izena emateko epea. Asturiaseko Llanes herrian egingo dute aurtengo egonaldia, hiru txandatan, uztailearen 1etik 22ra bitartean. 2005 eta 2010. urteen artean jaiotako umeek har dezakete parte. Sanloko jokalarientzako prezioa 350 eurokoa izango da, eta 375 euro ordaindu beharko dute Sanloko jokalaria ez direnek. Eguen goizean ireki zuten izena emateko epea eta plazak mugatuak direla ohartarazi dute. Informazio gehiagorako 688 735 446 telefonora hots egin edota santolatxo@gmail.com helbidera idatzi.

60+ taldeko kideen babesak Elgoibar Kirolaren Europako Herria izendapenari



60 urtetik gorako pertsonen ongizatea eta bizitza kalitatea sustatzen dituen 60+ programako erabiltzaileek babesak adierazi diote "Elgoibar Kirolaren Europako Herria 2019" izendapenari eta Elgoibarrek Bruselatik ekarritako banderarekin atera dute argazkia. Udal Kirol Patronatuak 2011n jarri zuen martxan 60+ egitasmoa, 60 urtetik gorako herritarren artean jarduera fisikoa sustatzeko asmoz. Jarduera fisikoaren eta garapen pertsonalaren bidez, zahartze aktiborako bizimodu osasuntsuak sustatzen dituzte, funtzio emozionalak, motibazioak eta sozialak hobetzen dituzten estrategiak erabilita. Une honetan 70 lagunek parte hartzen dute egitasmoan. Martitzenetan eta eguenetan ematen dituzte saioak, Mintxetan, IMH kiroldegian eta Kultur Etxean.

Pala txapelketetarako izen-ematea, martxoaren 8ra arte

Martxoaren 26tik ekainaren 21era Kalegoen plazan jokatuko dituzten emakumeen eta gizonen pala txapelketetan izena emateko epea zabalik dago. Martxoaren 8ra bitartean eman daiteke izena Jai-Alai tabernan. Bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Emakumeen pala txapelketaren 8. edizioa izango da aurtengoa, eta laugarrenegoz antolatu dute gizonena. Ohi duten legez, Kalegoen plazako frontoian jokatuko dituzte partidak.



LANA.....
Eskaearak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 631 470 506

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa eta lisaketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 642 350

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa eta lisaketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 145 986

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. ☎ 632 356 066

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Orduka eta jardunaldi erdian. ☎ 677 895 202

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Lorezain jarduteko edo txakurrak paseatzeko ere prest. ☎ 697 820 143

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 631 714 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile moduan. ☎ 644 558 390

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 622 153 750

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest. Esperientzia eta malgutasun osoa. ☎ 631 980 741

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 476 921

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 574 783

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. ☎ 631 906 590

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Umeak zaindu eta garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ 632 796 081

Adinekoak zaindu eta garbiketarako egiteko prest nago. Ospitaleko zaintzak egiteko ere prest. ☎ 631 822 545

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest. ☎ 602 814 756

Adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Orduka. ☎ 655 094 780

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 678 112 785

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Ospitalean gauak pasatzeko prest. ☎ 685 185 462

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 669 894 049

Orduka lan egiteko prest nago. ☎ 693 673 904

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 632 796 081

Adinekoak zainduko nituzke. Beharrezko titulazioa daukat. ☎ 632 729 261

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean gauak ere pasatuko nituzke. ☎ 631 822 545

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, arratsalde. ☎ 689 003 537

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 470 388

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia handia. ☎ 602 369 680

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 064 889

Eraikuntzan edo baserri lanetan egingo nuke lan. Esperientzia daukat. ☎ 602 405 707

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 602 405 039

Adinekoak zaintzeko prest nago, ospitalean ere bai. Garbiketa lanetarako ere prest nago. ☎ 631 987 624

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. Erreferentziak ditut. ☎ 631 959 435

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ 632 251 861

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentziak ditut. ☎ 632 501 003

Eskaintza

Elkarte bat garbitzeko autonomo moduan lan egiten duen pertsona behar da. ☎ 659 692 832

Debako taberna batean lan egiteko zerbitzari euskalduna behar da. ☎ 606 727 876

Neska gazte eta euskalduna behar dugu, goizetan 7 urteko umea zaintzeko. (7:30-9:00). ☎ 646 571 984

ETXEBIZITZAK.....
Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 677 259 560

BESTELAKOAK.....
Haritz dantza taldekoek jantziak uzten dituzte, baina gero askok ez dizkiete bueltatzen. Norbaitek etxean dantza taldeko erropak badiu, merkatu plazako lokalera eramateko eskatu dute. ☎ 686 633 178

Txabola bat alokatu edo erosiko nuke, lursail txiki batekin. ☎ 646 225 465

Paparreko orratz bat galdu dut, Plaza Txikitik Maalara bitartean. ☎ 943 531 648 / 669 916 148

GARAJEAK.....
Garaje irekia salgai, Lekuederren. ☎ 606140 287

Garajea salgai San Roke 10ean, Kiroldegi ondoan. 20m2. Ateak 2,25 metroko altuera dauka, eta barruan altitilo bat egiteko aukera. Kotxe handi edo furgonetarentzat egokia. ☎ 669 894 049



Garaje itxia alokairuan San Roke 16-18an. Anbulatorioko igogailuaren ondoan. ☎ 655 720 570

Garajea salgai erdigunean. Auto txiki batenzati edo moiorrarentzat aproposa. ☎ 658 741 463

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Federación Vasca Administradores Locales Autónomos



ROSA M^a PINTADO

Etaldeen Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net


Gure komunitatean, zuzendaritzakideak aldatzera goaz eta estatutuetan garajea finka zatiezin bezala ageri da, %21eko parte-hartzearekin elementu komunetan. Are, garaje horren Ondasun Higiezinaren gaineko zerga zatitu gabe dago eta zerga horretan komunitatea ageri da subjektu pasibotzat, eta beraz, garaje-jabeek nork bere parte ordaindu behar diote komunitateari. Jakin nahiko nuke zeinek agertu behar duen batzarrerara.

Gainera, garaje jabeetako batek itxi egin du bere garaje-plaza eta hormak elementu komunetan jarri ditu. Jakin nahiko nuke horretarako komunitate osoaren onespina behar duen edo garajeetako azpi komunitatearena.

Komunitate nagusiaren agiritan bestelakorik jaso ez bada, garaje-etako komunitatearen presidente bat edo idazkari bat izendatu beharko dute bilerara orokorrera joateko. Pertsona hori izango da garajeetako azpi komunitatearen ahotza, bilerara horretan.

Bestalde, garaje-plaza bat ixtea garaje-komunitateko kontua da, eta beraz, hango irizpideen arabera erabaki beharrekoa.

AHOLKUA: Obra horrek ez badie elementu komunei txarrerako eragiten, ez badiu eraikinaren segurtasunari eragiten, komunitate nagusiak ezingo du eragozpenik jarri. Kontrako kasuan, ordea, bai.






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Itxaso**, domekan 6 urte bete zenituelako. Mila muxu familiako denon partez.




Zorionak, **Mikel**, martxoaren 7an 10 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez, muxu bat.



Zorionak, **Maia-len!** Bihar 7 urte! Mozorrotuta ospatuko dugu aurten! Patxo handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Haritz**, 8 urte egin dituzulako! Iraultza, Oihan, Sugar eta Harrieten partez. Ondo pasa.



Dagoeneko 12 urte gure etxeko emakumetxoak! Zorionak, **maittia**, eta muxu potolo bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Jone**, martxoaren 6an 6 urte beteko dituzulako. Patxo erraldoi bat gure txapelunari etxeko guztion partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Nora**, gaur 7 urte egin dituzulako. Amama Luciaren eta Carmen eta Miriam izeben partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

667 261 248 (Leina)

IKASBAI AKADEMIA
KLASE PARTIKULARIAK

IKASGO ACADEMY
ENGLISH CLASSES
ELGOIBARREN

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

LASTAIRA %100 NATURALA

KALITATE HANDIENEN ATSEDENEAN ESPEZIALISTAK

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



TERXY QUERCUS

1 BARIXAKUA

12:00 Elkarretaratzea: 'Euskal preso eta iheslariak kanpora' lemapean. LABek deituta, Mendaroko errotondan.

18:30 Odol ateratzeak Elgoibarren. Odol emaileen elkartean.

19:15 EHBilduren lokalaren inaugurazioa. San Frantziskon 11n.

20:00 Emakumeak elkar ezagutzeko bilera irekia, Narrutsik Elgoibarko talde feministak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

20:30 Antzerkia: 'Erlauntza' antzezlanaren taularatuko du Vaiven Produzioak taldeak. Elgoibarko Herriko Antzokian.

3 DOMEKA

11:00 Buruhandiak egiteko tailerra, haur eta gurasoentzat. 16:00etan, Zubigazteko gazteentzat. Mendaroko Ludotekan.

4 ASTELEHENA

17:00 Ipuin kontalari musikatua: '7 neska ausart'. HH5eko umeentzat. 17:30ean, LH1 eta LH2koentzako. Elgoibarko Udal Liburutegian.

6 EGUAZTENA

19:00 Bizikidetzaren jardunaldiak. Mahai-ingurua: Biñetetan gordetako historia. Edorta Arana eta Txema Uriartek emango dute saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

7 EGUENA

19:00 Isiltasunaren eskola: Meditazio topaketa. Kultur Etxeko sotoan.

20:00 Jardunaldia: Pertsonen eta taldeentzako ingurune dinamikoaren eskakizunak. Jose Cruz Igartua izango da hizlaria. Kultur Etxeko sotoan.

8 BARIXAKUA

12:00 eta 19:00 Elkarretaratzeak, Uluka batukada taldekoen laguntzarekin. Kalegoen plazan.

12:00 Elkarretaratzea, Mendaron. Herriko Enparantzan.

Zinea (Herriko Antzokian)




'Green book'

2 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

3 domeka: 19:00

4 astelehena: 21:30



'La gran aventura de los Lunnis y el libro mágico'

3 domeka: 16:30



'Quién te cantará'

(Ongarri zinekluba, Berdintasun Sailarekin elkarlanean)

7 eguena: 21:30

INAUTERIAK 2019 - Mendaro

1 BARIXAKUA

15:15 Inauteri festa. Ikastolan.

2 LARUNBATA

12:30 Bizi Poza txaranga.

17:30 Diskoteka animatua, frontoian.

18:30 Txokolatada.

5 DOMEKA

17:00 Mozorro tailerra, frontoian.

18:00 Munduan Berbena, dantzaldia.

INAUTERIAK 2019 - Elgoibar

1 BAIXAKUA

15:15 Euskal Inauteria. Elgoibar Ikastolako ikasleek kalejira egingo dute, Ikastolatik Kalegoen plazara arte. Euria egiten badu, Ikastolan bertan egingo dute jaialdia.

16:30 Ludotekako mozorro festa. Merendola, dantzaldia eta mozorro lehiaketa. Ludotekan.

22:30 Sinuöseren inauterie-

tako kontzertua. Sotoan.

2 LARUNBATA

18:00 Atxutxikaraokea eta koreografiak. 2-12 urte bitarteko haurrentzat, Maalako parkean. Atxutxiamaikak antolatuta.

19:30 Mozorroren desfilea, Maalatik plazara. Mautitza txarangarekin. Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

00:30 Erromeria. Fan&go taldearekin. Maalako parkean.

3 DOMEKA

18:00 Dantzaldia, Eguren orkestrarekin, Jubilatuen Biltokian.

5 DOMEKA

16:45 Mozorroren elkar-
tzea. Kalegoen plazan.

17:00 Kantu kolore haur berbena: Far West. Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Maalan.

18:00 Eguren orkestraren dantzaldia eta mozorro lehiaketa. Jubilatuen Biltokian.

18:15 Mautitza txarangaren kalejira. Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
1 BARIKAKUA	2 ZAPATUA	3 DOMEKA	4 ASTELEHENA	5 MARTITZENA	6 EGUAZTENA	7 EGUENA	8 BARIKAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria
Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauetz: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

AINGERU GUARDAKO JAIK MENDARON

1 BARIKAKUA

11:00 Meza, Aingeru Guardako kapera.

3 DOMEKA

11:30 Meza, Aingeru Guardako kapera.

Ondoren, trikitilari eta bertsolarien emanaldia. Trikitilariak: Asier Landa,

Leandro Esnaola eta Igor Rey. Bertsolariak: Maider Arregi eta Aitor Urbieta.

Segidan, herri kirolen erakustaldia.



**Ekonomia
Susperterako
Plana:
emakumeek
sortutako
557 enpresa
berri.**

Ekonomia Susperterako Planera 200 milioi euro bideratzeak, besteak beste, emakumeek bultzatutako 557 enpresa martxan jarzen laguntzeko, zentzua du soilik inbertsio horren atzean zu baldin bazaudete. Eta zu bezala, gure lurralderako etorkizun hobea nahi duten milaka pertsonak.

*Gipuzkoa,
zenbakiekin
soilik kontatu
ezin diren 4 urte.*

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikitx





Eire Vila

Jone Olaizola




Azken hilabeteotan kontuak ez zaizkizu ongi ateratzen. Zerbakiak dantzan dabilzkizu buruan eta ingurukook kezu gara gauzak birritan errepikatu behar dizkizugulako. Egoera berri honetara moldatu nahian, adibidez, hortz-eskuilari jada egin diogu txokoa hozkailuan, han uzten tematu zarelako. Senideen izenak behin baino gehiagotan gogorarazten dizkizugun arren, errebeldia moduko batek jota bezala, ez diguzu kasu askorik egiten. Argi dago zure memoriaren irratian beste zerbait entzuten dela, gaztetako kontuen sintonia da zurean dabilena. Etxetik irten aurretik gogorarazi dizut eraman beharreko "gauza garrantzi-

tsuen zerrenda": sakelako telefonoa, diru-zorroa, aterkia eta etxeko giltzak. Hiru aldiz errepasatu dituzu, eta oraingoan dena hartu duzu;ziur zaude. Alabaina, etxe aurreko aldapa jaitsi orduko lotsak eta beldurrak hartu zaitu, oinetakorik gabe atera zarela konturatu zarenean. Negar zotinka iritsi zara etxera eta ni zu animatzen saiatu naizen arren, pentsatu dut zein zaila den gurea dela sentitzen dugun zerbait galtzea. Nahiz eta pentsatzen dudan ezer ez dela betiko eta ezer ez dela benetan gurea. Era berean, pentsatu dut ustezko gauza garrantzitsuen zerrenda horri zuk eta biok begiratu bat eman behar diogula "sakelako telefonoa, diru-zorroa, aterkia..." kendu eta zoriontsu egiten gaituzten gauzak sartuko ditugula zerrenda horretan, erraz gogoratzeko modukoak.

"Argi dago zure memoriaren irratian beste zerbait entzuten dela"

Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



Maria Eugenia Etxeberria Mendizabal

2019ko otsailaren 25ean hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



X. URTEURRENA

Borja Uzuriaga Mendizabal

2009ko martxoaren 1ean hil zen, 25 urte zituela.

***Nahiz eta urrun joan mundu honetatik,
ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.***

Zure lagunak




XII. URTEURRENA

Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Etxekoak



II. URTEURRENA

Jesus Maria Etura Echeverria

2017ko martxoaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da,
barixakuan, martxoaren 1ean, 19:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen
goxoa ezerk ez du lausotuko.***

Sendia





STOCK FERIA

ELGOIBAR

MARTXOAK 9, LARUNBATA

10:00ETATIK - 14:30ERA

MAIALAKO PARKEAN

PARTE-HARTZEKO ETA INFORMAZIO GENIAGO ESKURATZEKO DEITU 943747301 ZENBARIKA

